

noaua



**Santixabel jaiak
ekainaren 29tik
uztailaren 3ra
ospatuko dira**

**Martxoaren 15ean
hasiko da Soinurbil**

**Asteburu honetan,
Gazte Eguna**



**Nekane Larrañaga:
“Elektrizitatearen
faktura ulertzeko
gai denak
hobeto aukeratuko
ditu aurrezteko bideak”**



errigora.eus

martxoak 10 - 30

**Nafar hegoaldeko uzta
eskutik eskura**

Oinak lurrean



**Bete ezazu
despentsa
*urte guztirako***



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

MARTXOAK 15, ASTEARTEA - POTXOENEAN

1. deialdia 17.30 / 2. deialdia 18.00

GAI-ZERREDA:

- 1) 2021eko memoria eta balantze ekonomikoa
- 2) 2022ko egitasmoak eta aurrekontuak
- 3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
- 4) Galdera erantzunak

noaua



Albisteak iruditan

Santixabel jaiak ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko dira

COVID-19aren erruz, 2020an eta 2021ean ez zen Santixabelak antolatzerik izan. Kultur Birak bete zuen jaiak utzitako hutsunea. Gauzak normaltzen hasi diren honetan, Santixabel jaiak antolatzeko asmoa du agertu du Jai Batzordeak. Ohiko ereduari eutsi nahi diote, “baldin eta osasun egoerak ahalbidetzen badu”. Martxoaren 28an egingo dute hurrengo bilera.

Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdi egoera indargabetu ondoren, herriko festen ohiko ereduraz itzultzeko aukera mahai gainean jarri du udalak. Martxoaren 2an eginiko bileran, herriko eragileek bat egin zuten udal proposamenarekin. Beraz, aurrean ez da Kultur Birarik izango, “baina horren zenbait alderdi ohiko ere-



Jai Batzordea aurreko astean batu zen lehen aldiz. Martxoaren 28an bilduko dira berriz, Potxoenean.

duan txertatzearen alde egin dute”, ohar-tarazi du udalak.

Santixabeletako Jai Batzordearen biga-

rren bilera hilaren amaieran egingo da: martxoaren 28a astelehena, Potxoenean, 18:30ean hasita.

Laburrean

Intzidentzia gorantz

317,06tik 380,47ra igo da 100.000 biztanleko 14 eguneko koronabirusaren intzidentzia Usurbilen. Urtarrila 681 kasurekin eta otsaila 113 kasurekin agurtu genuen. Martxoko lehen sei egunetan 14 positibo hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak.

1956ko kintoen bazkaria

1956an jaiotakoak apirilaren 2an larunbata batuko dira Atxega jauregian. “Animatu eta gogoz dagoenak martxoaren 20a baino lehenago izena eman beharko du ondorengo telefonoetan: 607 942 458 (Xabier) edo 695 713 969 (Josefina)”.

“Aktibatzen”, bilera irekia

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren inguruan “kirol politikak modu zabal eta inklusibo batean garatu ahal izateko” prozesuaren baitan, bilera irekia deitu dute ostegunerako, martxoak 10, 18:00-20:00 artean Potxoenean. Hurrengo saioa, hilaren 31n, ordu eta leku berean.

noa.ua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noa.ua /// www.noa.ua
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noa.ua

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noa.ua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ugaitz Agirre

Nahia eta ezina uztarri berean

Kopuruak ez du kalitatea ziurtatzen. Axio-
ma hori hartu behar-
ko genuke kontutan duela
900 kapitulu hasi zen istorio
amaigabe hau eskuartean
heldu eta kritika eraikitzaile-
lea egiteko orenean. Noizbait
egin behar zen, eta urteurren-
ak egokiak izan ohi dira ho-
rrelakoetarako.

NOAUA! #1 kaleratu ze-
nean, inork gutxi espero ze-
zakeen nondik joango zen
istorioa. Protagonismoa he-
rriari emateak, opera korala
egin nahiak, berarekin hamai-
ka arazo, buruhauste eta bar-
ne kalapita dakartza. Horren
jakitun ote ziren istorioaren
sortzaileak? Zalantzak ditut.
Zalantzak ditudan bezala ea
koherentzia sortzaile horien
kaskezurrean sartuta ote ze-
goen. Editoreak ere zer hartu
ote zuen NOAUA! #2 argita-
ratzen uzterakoan?

Iraganeko hutsegiteak al-
ferrik konpon daitezke egun,
eta zama horrekin bizi behar
izan dute proiektu honeta-
ra bildu dituzten idazleek.
Sonata bat lau eskuetara jo
badaiteke, sinfonia amaiezin
hau auskalo zenbat eskutara
jo ote den. Animaleko zo-
rakeria. Hala eta guztiz ere,
eta irakurleak senti dezakeen
furia eta antsia nigana jaurti
aurretik, utz iezadazu nire
arrazoiketa hemen argitara-
tzen.



“Azken kapituluan aurkeztuak izan ziren zenbat pasadizok izango ote dute jarraipena NOAUA! #900 kapituluan?”.

UGAITZ AGIRRE

**“Zerbait asmatu
izan bada kontakizun
honekin, hori
izenburua izan da.
Ezin aproposagoa
nora doan
ez dakien istorioarentzat”**

Koherentzia eza narra-
zioaren parte diren eszenek
osatzen duten lotura lauso
edota baldarretatik harago
doan gabezia da. Pertsonaiak
masa kaotiko bat dira, euren
artearen harreman absurdoak
antzerkiaren daitezke errealismo-
tik deus edaten ez duen arke-
tipoak eratuz. Hori ulergarria
izan daiteke hasiberria den
idazle-kolektiboarengandik;
ez, ordea, bederatzehungar-
ren kapitulua kaleratzera iritsi
den titulu batengandik. Zerk
mugitzen ditu? Zer mugitzen
dute? Zein da euren barne-gu-
da? Noizean behin pertsonaia

berri bat agertzen da istorioan
—narrazio nagusiarekin zeriku-
sirik ez duena dena esaten ha-
sita—, eta bere rolari buruzko
pintzelkada ziztrinen ostean,
desagertu egiten da auskalo
noiz arte. Komedia merke ba-
tekoak dirudite, beharrezkoak
direnean bakarrik agertzen dira
eszenan.

Galdetu NOAUA! irakurtzen
ari den edonori. Galde egiozu
ea pertsonaia karismatikorik
oroitzen ote duen. Milara bi-
dean, eta oraino ezin jakin nor
den istorioaren protagonista.
“NOAUA! #589an agertu zen
bat eta hark egin zuen zera...”
Gezurra! Egiazki istorio hau
ulertzeko saiakera egin duenak
pertsonaia guztiak zaborron-
tzira botatzeko direla aitortuko
dizu.

Alabaina, pertsonaia ez
da herren egiten duen hanka
bakarra. Gertakarien hurrenke-
ra sekula sekulotan ikusi ga-
beko harpa-jotzerik handiena

da. Badirudi gertakariak
zoriak erabakitzen dituela,
eta bat-batean, aurreko ka-
pituluaren ardatz eta lokarri
zena, kontakizunetik desa-
gertzen da ondorengoan
irakurlearengan frustrazio
gordinena eraginez.

Noski, kritikatzera edono-
ren esku dagoen gaitasuna
dela aurpegira nazakezu, be-
netako lana hor buruari era-
giten, pertsonaiei ustekabe-
ko birak asmatzen egotean
datzala leporatuko didazu.
Arrazoi faltan ez bazara ere,
bakoitzak du bere egitekoa:
idazleak sormenaren faze-
ta eta kritikariak azterketa
zorrotzarena. Eta ez narabil
obra honekiko gorrotoak.
Barka nazala hala bada. Ha-
atik, azken kapituluan aur-
keztuak izan ziren zenbat
pasadizok izango ote dute
jarraipena NOAUA! #900 ka-
pituluan?

Garaiz erretiratzea garai-
pen loriatsua omen. Errota-
tibak geldiaraztea mahai gai-
nean jarri behar lukenen
aukera izan behar da; eta ez
diot literatura kritikaren pul-
pitutik hitz egiteak dakarren
jakituria eta ezagutzatik, ez,
baizik eta jendarteari egingo
liokeen mesedea aitzakotzat
hartuta eta lehenetsita.

Zerbait asmatu izan bada
kontakizun honekin, hori
izenburua izan da. Ezin
aproposagoa nora doan ez
dakien istorioarentzat.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Gazte mugimenduak bilgune bat izango du Artzabalen

Osasun krisialdiak eragotzitako Gazte Eguna bueltan datorkigu asteburu honetan bertan, zineforum, poteo girotu, afari eta kontzertu gauarekin. Parte hartzeko gonbita luzatzen diote, bereziki, gazte belaunaldi berriari. Atzeratzeak aldaketak egin beharra eragin die egitarauan. Kontzertu gauan adibidez. “Aurretik lotuak genituen taldeek ezin zuten etorri” eta birmoldatu beharra izan dute hitzordua. Halere, “gustura gaude, zerbait desberdina eskainiko dugulakoan gaude”.

Hirugarren saiakera honek ordea badu, hitzordu honetatik haratago doan pizgarri bat ere. Usurbilgo gazte mugimenduak biltzeko egoitza izango du eta aurrerantzean. Gunea larunbat honetan bertan zabalduko dute, eta modu honetan emango zaio hasiera martxoaren 12ko Gazte Egunari.

Herriko gazte guztiena

Gazte lokal berria Artzabalgo plaza ondoan kokatuko da, lehen Zumarte Musika Eskolak edo azken aldian, oroimen historikoa berreskuratzeko lanetan ari den Usurbil 1936 elkarteok baliatzen zuten gunean hain zuzen. Haiei eta Udalari, “eskerrak eman lokala uzteagatik”.

Herriko gazte mugimenduen aterpea izan nahi du egoitza berriak; “gune autogestionatua, herriko gazte guztiena, eragileena, kohesiorako espazio bat herriarentzat, eragile guztiek erabiltzeko. Edozein



Gazte Eguna bueltan da. Ekitaldi ugari antolatu dituzte asteburu honetarako.

AZTARRIKA

“Lokala motore modukoa izango da ekimen ezberdinak egiteko”

gazte jakin dezala hor bere txokoa izango duela. Ez dugu irudikatzen bilera gune hutsa izango denik. Artzabalgo auzoari bizitza emango dio”. Lokala bera “motore modukoa izango da hortik kanpo ere ekimen ezberdinak egiteko”. Bai Artzabalen bertan, baita beste txoko hainbatetan ere. “Aginagako Eliza Zaharra elkargunearekin hitz egiten gabiltza, lankidetzan aritzeko. Gazte lokalaren irekierak herri eragile desberdinen arteko harremanak erraztuko du”. Gazte eragile deserndinen proiektuak aurkeztu edota gazte asanbladaren etorkizuneko erronkei buruz jardun asmo dute larunbateko irekieran.

Espazio baten alde lan egiten

Gazte mugimendua saretua dago egun; sare horren bueltan hartuemanetan dira Aztarrika

Gazte Asanblada, Kafe Tertulia, Xauxar Txosna Batzordea edota Ernai. Eragile gehiagorekin ere lankidetzan aritu izan dira, Ziortza gazte elkar-tekoekin, edota kirol klubekin. Prozesu baten testuinguruan kokatzen dute eta gazte lokal berri honen irekiera. “Denbora goaz gazteontzako espazio baten alde lan egiten”, gazte mugimendutik gogorarazi dutenez. Gaztetxe baten bila alegia. Pandemia garaian, gazte beharren inguruko diagnosi bat landu zuten; azaleratu ziren beharren artean, gazteek autogestionaturiko gune baten gabezia zegoen. “Prozesu luze bat jarri genuen martxan”. Lehen fasean hausnarketa prozesu bat eta segidan “espazio zehatzaren bila joan gara. Ez da erraza izan eta oraindik horretan jarraitzen dugu”.

“Ez gara helmugara iritsi”

Ez dute eta behin betiko egoitza jotzen Artzabalgoa. “Hau izan da momentuko erantzuna emango dion gunea”. Baina ohartarazi dutenez, “ez ditu guztiz asetzen gure

beharrak”. Eta beraz, “ez gara helmugara iritsi”, aipatu diote NOAUA!ri Usurbilgo gazte mugimendutik. “Espazio honek gauza batzuk egiteko aukera emango digu, tresna bat izango da”. Baina “nahiz gustura gauden aurrerapausoak ematen ari garelako”, bidea hor ez da amaitzen. Aurrera begira proiektu handiago bat diseinatzeke lanetan ari dira.

Gazte Eguna eta ‘Zartada’

Martxoak 11, ostirala

■ 22:00 Zineforuma frontoian. Gasteizko gaztetxeari buruzko dokumentalaren proiektzioa.

Martxoak 12, larunbata

- 11:00 Gazte lokalaren inaugurazioa Artzabalen, Zumarteren lokal ohian.
- 18:30 Poteo girotua Askatasuna plazatik hasita.
- 21:00 Gazte afaria Askatasuna plazan. Txartelak Aitzagan salgai. Txartelarekin batera kamiseta.
- 23:30 Kontzertu gaua Askatasuna plazan: Makulu Ken eta Zailek.
- Ondoren, DJ-a.

Martxoak 18-20, ‘Zartada’

‘Zartada’ Euskal Herriko gazte mugimenduen topaketak Gasteizen. Martxoaren 18an 18:30ean “Gazte boterea: gu gara gure geroa” izeneko solasaldian parte hartuko du Aztarririk.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ERAMATEKO!!!

EGUNEKO MENUA
KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

“Elektrizitatearen faktura ulertzeko gai denak hobeto aukeratuko ditu aurrezteko bideak”

Elektrizitate konpainia batean egiten du lan Nekane Larrañaga usurbildarrik. Elektrizitatearen fakturak kezkatuta dauzka hainbat herritar, eta faktura hobeto ulertu eta elektrizitatearen igoeraren zergatiak ulertzeko elkarrizketa bat eskaini dio NOAUA!ri.

NOAUA! Elektrizitate fakturak kezkatuta dauzka herritar asko. Zergatik gertatzen dira igoera handiak batzuetan?

Nekane Larrañaga: Aldaketa oso handiak daudenean, arrazoi bat baino gehiago egon daitezke atzean, baina sarri enpresek bezeroak erakartzeko dituzten estrategien ondorio baino ez da. Enpresa berri batekin elektrizitatea kontratatzean, eskaintza ederrak egiten dira maiz, ondoren, urtebetera edo igoz. Promozioak izaten dira askotan. Telefono konpainiekin ere hala gertatzen da. Proposamen merke-merke bat hartu eta gero denbora bat pasatuta askoz ere garestiago bihurtzen da. Arrazoietakoa bat hori izan daiteke, marketing estrategia bat.

Orokorrean igoera dagoela esaten dute hedabideek ere.

Merkatuaren egoeraren ondorio zuzena da hori, eskari eta eskaintzaren arteko harremanaren ondorioa, finean. Energia sortzaileak eta komertzializ-



“Elektrizitatearen prezioan aldaketa oso handiak daudenean, arrazoi bat baino gehiago egon daiteke horren atzean”, azaldu digu Nekane Larrañagak. Elektrizitate konpainia batean egiten du lan.

NEKANE LARRAÑAGA

“Enpresa berri batekin elektrizitatea kontratatzean, eskaintza ederrak egiten dira maiz. Ondoren, urtebetera edo, igoz. Promozioak izaten dira askotan”

zaten duten enpresek osatzen dute elektrizitatearen sare hori. Parke eoliko bat sortzailea da, eta elektrizitate konpainiak komertzializatzen dutenak dela Iberdrola, dela Endesa, dela Holaluz edo dena delakoa.

Konpainiek beharko duten elektrizitatearen aurreikuspen bat egin behar dute behar duten energia kantitateari lotuta. Aurreikuspen horrekin handizkarien merkatura jo behar du konpainiak orduro. Orduro egiten den prozesu bat da. Egunean zehar, prezioak ez dira berdinak. Demagun 200 MW behar ditudala eta horretarako 100 euro eskaintzen ditudala. Oso garestia litzateke hau, baina adibide hutsa da. Sortzaileek ere orduro aurreikuspena egiten dute zenbat energia sortuko duten aurreikusiz eta zein preziotan saltzeko prest

dagoen. Momentu horretan, eskari eta eskaintzaren arteko joko hasten da. Gasa saltzen dutenak sartzen dira puntu horretan jokoan, eta zenbatean saltzen ari diren azaltzen dute. Momentu honetan 320 euroan dago prezio hori. Beraz, energia berdea sortzen duten sortzaile horiek eskaintza horren azpitik daudela ikusten dute, eta gasaren preziora igo beharra daukate. Hori da hasieran azaltzen genuen elektrizitatearen prezioaren igoeraren zergatia edo jatorria. Egoera hau ez da gurean bakarrik gertatzen, Europako egoera orokorra da.

“Burujabetza lortu nahi bada, parke eolikoak behar dira”

NOAUA! Energiaren arloan burujabetza lortzea gakoa izango da, ezta?

Nekane Larrañaga: Horrek behar luke izan etorkizuna. Baserrietarako aukera ederra izan daiteke. Estatuak finantzatzen du instalazioaren %55a, eta ikusita merkatuaren joeran, autoekoizpena

erremedio bikaina izan liteke. Fakturan aurrezpen nabarmena izango da eta plakak jartzearen gastua hiru bat urtean amortizatu daiteke. Zein konpainiarekin kontratatzen den eta zein baldintza dituen begiratu beharko litzateke, jakina. Estrategia anitzak daude konpainien artean, eta hor kasu bakoitza

aztertu beharko litzateke erabakirik onena hartzeko.

Andatzan parke eoliko bat jarri nahi dute, hori jakin du berriki Udalak.

Jende askori horrelako instalazio bat herriko mendian edukitzeak ez dio graziaz egingo, baina horrelako instalazioak

behar dira etorkizunean lehen aipatutako burujabetza hori nahi bada.

Merkatuan sortzaileak ari dira dirua irabazten, 20 eurotan salduko luketen energia 320 eurotan saltzen ari baitira, eta hor enpresa askok burua sartu nahi izatea ulergarria da.

“Errusia eta Ukraina arteko gerrak eragin zuzena izango du elektrizitatearen merkatuan”

NOAUA! Gasaren prezioak eragin zuzena du argiarenean.

Nekane Larrañaga: Hiru arrazoi nagusi daudela esango nuke. Alde batetik, arestian aipatutako eskari eta eskaintzari lotutako merkatua. Pandemiak eragin zuzena izan zuen horretan, eta orain pixkanaka errekupe-ratzen hasita, energia pila bat behar dugu. Horrez gain, gas gutxi dago Europan. Urtero gas kopurua neurtzen da stock-ean zenbat dagoen kalkulu bat eginda, nolabait azaltzeko.

Udan antzeman genuen hori, batez ere, gas gutxi badago, bere prezioa handiagoa da, nahitaez. Beraz, nahiz eta energia berriztagarria izan berdin berdin gasaren prezioaren parean egon behar du prezioak, eta horregatik, gasa izan edo energia berriztagarria izan, prezioak oso antzekoak dira. Beste arrazoietako bat sortzailerek behar dituzten ziurtagiri batzuei lotuta dago. Sortzailerekin CO2 egiaztagiriak behar



“Gerra eragin zuzena izaten ari da gasaren prezioan eta, ondorioz, elektrizitatearenean ere bai”.

NEKANE LARRAÑAGA

“Etxean gasa duen jendeak epe ertain edo luzera berriztagarrietara jo beharko du. Ez dago beste aukerarik”

ditu. Hori Europar Batasunak erregulatzen du. Klima krisi baten aurrean gaudenez, egiaztagiri gutxiago ematen ditu EBk, eta beraz, lortzeko

borroka gehiago dago. Hiru arrazoi horiek kontuan izanda, iagoera nabarmena izan da.

Europara sartzen den gas asko Errusiatik dator, eta orain Errusia eta Ukrainaren arteko gerraren ondorioz, Alemaniak Errusiari gas gehiago ez erostea erabaki du.

Europara datorren gasaren hodia Alemaniatik pasatzen da, eta Alemaniak jada abuzturako Errusiatik gas gehiago ez

ekartzea erabakita zeukan. Gerra eragin zuzena izaten ari da gasaren prezioan, eta ondorioz, elektrizitatearenean ere bai. Gerrak epe ertain edo luzera ez dakigu zein eragin izango duen gai honetan, baina eragin zuzena izango duela ziur.

Etokizuna, ilun

Energia berriztagarriak gasaren ordezkotzat modura erakutsi dira beti.

Jendeak geroz eta gailu elektroniko gehiago ditu etxean, eta beraz, elektrizitate gehiago behar du. Hori arazo larria da. Gas geroz eta gutxiago dagoela kontuan hartuta, etxean gasa duen jendeak epe ertain edo luzera berriztagarrietara jo beharko du, ez dago beste aukerarik. Jendeak askotan galdetzen du ea iagoera hau aldatuko den edo gasa amaituko den edota zer gertatuko den. Horren erantzunik ez dauka inork, baina egoerak hobera joateko itxuririk ez du.

“Nuklearra energia berdea dela esateak ez du zentzurik”

NOAUA! Energia burujabetzarako bidean, zenbait entitate publiko hasi dira lehen urratsak ematen tokiko energia komunitateak sortzeko.

Nekane Larrañaga: Inbertsioa egiteko errazagoa da bide hori hartzea. Lege bat bada horri lotuta. Eguzki plaken instalazio bat dagoen lekuetan, erradio bat sortzen da. Europako herrialde batzuetan erradio hori nahiko zabal da, baina Espainiako legedian oraindik nahiko txikia da. Posible da hemendik urte batzuetara hobea izatea eta gisa honetako ekimenak modu zabalago batean egitea posible izatea. Udaletxe batek, eraikin publiko batzue-

tan eguzki plakak jarriko balitu, demagun 100 MW sortzen dituela, baina eraikin horrek 50 baino ez dituela behar, kasu horretan beste 50 inguruko etxeetara bidaltzeko aukera izango luke. Azken finean, plaka sare bat sortzen baduzu, inguruko eraikinentzat ere oso interesgarria izan daiteke.

Baserriekin ere berdin. Baserri batean plakak jartzen badituzte, ondoko baserrietara ere irits daiteke energia. Aukera ona da, eta ekonomikoagoa, zalantzarik gabe. Sarea zenbat eta zabalagoa, gas gutxiago beharko da, eta ondorioz, elektrizitatea askoz ere gutxiago ordaindu beharko genuke.

Energia berriztagarriak ari gara, energia nuklearra ere berriztagarritzat jotzen hasi dira. Gizartean oso erantzun kontrajarriak daude, baina nire ustez “Green Washing” baino ez da. Egia da energia lortzeko oso modu eraginkorra dela, baina egun batetik bestera halako batean energia berdea dela esateak ez du zentzurik. Europako Batasunak 2030erako bete behar edo behintzat bete nahi dituen helburu ekologiko batzuk zerrendatuta dauzka, eta energia berriztagarri bano elikatzen ez den sare bat sortu nahi du. Energia nuklearra berriztagarritzat jotzen baduzu, ez zara benetan energia berriztagarriak direnak bultzatzen

ari. Aurrez jarritako helburu horiek lortzeko tranpa egiten baino ez zara ari. Ziur energia nuklearrak ere azken urteetan izugarriko hobekuntzak egin dituela arlo guztietan, baina betiko arazoek betiko arazoak izaten jarraitzen dute. Gainera, energia eolikoari kritika ere egiten diote batzuek esanez elizeak ezin direla birziklatu. Hasieran egin ziren instalazioetan hala da, baina egungo instalazioetan erabiltzen direnak birziklagarriak direla uste dut. Gasarekin alderatuta, energia nuklearra nahiago duan? Jakina baietz, baina badaude beste aukera batzuk ere nire ustez askoz hobekak direnak.

“Baserri batean bizi direnentzat, egokiena eguzki plakak jartzea da”

NOAUA! Nola egin dezake norbanakoak elektrizitatea gutxiago ordaintzeko?

Nekane Larrañaga: Baserri batean bizi direnentzat, egokiena eguzki plakak jartzea da. Horretarako aukerarik ez dutenentzat, eta gasarekin jarraitzea beste erremediorik ez dutenentzat, garrantzitsuena faktura ulertzea da. Badirudi elektrizitate konpainiek nahita egiten dituztela oso faktura zailak behar bezala ez ulertzeko. Faktura ulertzeko gai denak hobeto aukeratuko ditu aurrezteko bideak; jakintza boterea da. Telebistan sarri esaten dute ordutegiarekin kontuz ibiltzeko, ordu batzuetan garestiagoa delako, baina denok ez daukagu ordutegien sistema. Askok eta askok bai, baina ez denek. Joan zen ekainean, Espainiako zenbatzaile guztiak berrezarri egin zituzten, nolabait esateko, eta orain denok daukagu sistema bera energia eta potentzia neurutzeko.

Hiru ordutegitan bereizten da, eta potentzia bitan. Zure energia konpainiarekin agian tarifa bat izan dezakezu 24 ordukoa, orduro berdina ordaintzeko. Telebistan ordutegiena askotan aipatzeak ez du esan nahi zure kasuan ere hala izan behar duenik zure tarifa bestelakoa bada.

Beraz, oso garrantzitsua da jakitea zer ordaintzen ari garen. Normalean, fakturari lotutako



“Badirudi elektrizitate konpainiek nahita egiten dituztela oso faktura zailak, behar bezala ez ulertzeko”.

NEKANE LARRAÑAGA

“Joan zen urteko aldaketa erregulatzailan, konpainiak behartu egin zituzten ordutegi bakoitzean zenbat kontsumitu zuen bezeroari erakustea”

xehetasunak fakturaren bigarren orrian agertzen dira. Energiari lotutako hiru lerro agertzen dira, KWHtan neurtuta. Horrek esan nahi du hiru ordutegi daudela. Ondo begiratu behar da hiru lerroetan ea kopuru bera ageri den, hala bada, hiru ordutegiengatik prezio bera ordaintzen ari gara, eta beraz, 24 ordutako tarifa bati buruz hitz egiten ari gara. Berdin, hiru lerro beharrean

bakarra badaukagu. Garbigailua gauean jarri edo eguerdian jarri berdin berdin ordaindu beharko dugu kasu horretan, eta ezingo genuke ordutegiarekin jokatu aurrez ahal izateko. Horrez gain, noiz kontsumitzen dugun gehiago jakitea ere garrantzitsua da. Joan zen urteko aldaketa erregulatzailan, konpainiak behartu egin zituzten ordutegi bakoitzean zenbat kontsumitu zuen bezeroari erakustea. Kontsumoaren gutzitzaoren %50 merkeagoak diren orduetan kontsumitzen baduzu, komeni zaizuna ordutegiak dituen tarifa bat izatea da. Beste pertsona baten kasua bada, garbigailua ahal denean martxan jartzea eta gauean jarri ezin badut edo ez badut hala egin nahi, 24 orduko tarifa bat egokiagoa izan liteke. Bi kontu horiek izan behar dira kontuan energiari dagokionean.

Horrez gain, potentziaren prezioa ere kontuan izan behar da.

Instalazioaren indarrari edo erresistentziari lotutako kontua da hau. Batera zenbat aparatu izan daitezkeen martxan esan nahi du nolabait. Nori ez dio fusibleak saltatu noizbait? Argindarra joaten zaigunean, gehiegizko indarra eskatu diogulako da. 4,6ko erresistentzia indarra da Espainiako batz bestekoa, hortik igotzen garenen joaten da argindarra. Bi urtean behin ere ez bazaizu argindarra joan arrazoi honengatik, esan nahi du behar baino gehiago daukazula. Denok Iberdrolaren banatzailea daukagu edozein konpainiarekin energia kontratatuta izanda ere, eta banatzailearen web orrian begira dezakegu i-d.es webgunean. Bertan kontu bat irekiz gero, zenbatzaileko datu guztiak izateko aukera du norbanakoak, eta ulertzeko erraza da. 4,6ko erresistentzia daukazula ikusten baduzu, baina orokorrean 3,5 baino gehiago ez duzula erabili, jaisteko aukera daukazu. Fakturan potentziaren prezioa agertzen da, eta jaitsi egiten baduzu, ez duzulako horrenbeste behar, gutxiago ordainduko duzu.

Hau guztia kontuan izanda, norbanakoak bere egoerara egokien moldatzen den aukerak egin ditzake eta dirua aurrez ere bai.



ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/22

20170
USURBIL

Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Soinurbil bueltan da

Zumarte Musika Eskolako eskutik, heldutasuneraino iritsi den 18. Soinurbil, datorren aste osoan.

Martxoak 15, asteartea

■ 18:00 'Lalala' familia kontzertua Sutegin. Camile Saint-Saëns musikagile frantziarraren 'Animalien Inauteria' obran oinarrituta dago. Bertan lehoia, dortoka, kangurua, oiloak eta tankerako animaliak azaltzen dira. Amaieran, haurrek euren itzalak sortu, eta musikaren erritmoan mugituko dituzte.

■ Izen ematea: 2 euro, usurbilkultura.eus plataforman.

Martxoak 16, asteazkena

■ 18:30 Urrietako Musika Eskolarekin trukaketa Sutegin.

Martxoak 17, osteguna

■ 18:30 Turukutupa konpainia-



Martxoaren 17an Turukutupa konpainiak 'Reziklantes' ikuskizuna eskainiko du.

ren 'Reziklantes' ikuskizuna kalean. Hondakin-materialak berreskuratu eta birziklatu ondoren, proposamen artistiko bihurtzen dituzte. 'Reziklantes' kontzertua ibiltaria da.

Martxoak 18, ostirala

■ 19:30 'Rockalean' musika ikuskizun ibiltaria kalean.

Martxoak 19, larunbata

■ 18:00 Ilunbe orkestra sinfonikoaren emanaldia Salbatore

elizan.

■ Zuzendaria: Joseba Garmendia.

Martxoak 20, igandea

Araiako musika bandaren kalejira eta emanaldia:

■ 12:00 Kalean emanaldia.

■ 13:00 Frontoian azken saioa.

Martxoak 28, astelehena

■ 18:00/19:00 Organo erakustaldiak Salbatore elizan, Joan Luis Atxegaren eskutik.

Kontzertu gauak

Aginagan

Otsailean hasitako zikloari segida emango diote asteotan Eliza Zaharra elkargunean. Bi kontzertu gau programatu dituzte hurrengo hamabostaldirako:

Martxoak 19, larunbata:

Skasti eta Martin de Marte

■ 22:30 Skasti eta Martin de Marte taldeen emanaldia.

■ Sarrerak: 5 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

Martxoak 26, larunbata:

Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa

■ 22:30 Kaleko Urdangak eta Unidad Alavesa kontzertuan.

■ Sarrerak: 10 eurotan aurrez usurbilkultura.eus plataforman.

Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra elkargunea.

10 urte etxarekin

egunero eta gauero
sukaldea irekita

943 36 91 39

ARTZABAL
BASERRIA - JATEETxea

Gipuzkoako Kopa jokoan Aginagan



Dardo zaletuen topagunean bilakatu zuten martxoaren Sean, Aginagako Eliza Zaharra. Gipuzkoako Kopak ia ehun bat lagun bildu zituen.

II. Uxue Trail lasterketa

Estreinakoz 2019an antolatu zuten; geroztik, osasun krisialdiagatik ezin izan dute edizio berririk ospatu. Aurten dator bueltan Uxue Trail mendi lasterketa solidarioaren bigarren edizioa. Ekainaren 18an Andatzan barrena ospatuko den arren, izen ematea zabalik du-

zue jada kronoak.com atarian.

Neurri ezberdineko probak

20 eta 11,5 kilometroko lasterketak, 7,5 kilometroko Ipar Martxa edota 5,5 kilometroko "Uxue Paseoa" izenekoa izango da aukeran. Baita Dortsal Solidarioa eskuratzekoa ere.

Elkartasun lasterketa bat baita honakoa. "Phelan-McDermid Sindromea, edo 22q13 kromosomaren gabetzea, gure herriko Uxue txikiak duen gaixotasun arraroa ezagutarazteko" eta sindrome honen ikerketa laguntzeko antolatu dute ekimen honen bigarren edizioa.

Eskubaloian Oiardon

Martxoak 11, ostirala
Jubenil neskak, 17:00
-Usurbil K. E.
-Aloña Mendi K.E.

Pilota Usurbilen

Martxoak 11, ostirala
Gipuzkoako
errendimenduko eskuz
binakako txapelketa
■ 18:40 Infantil 1. maila:
Pagazpe-Ataun.

Pagazpe, trinketeko

Gipuzkoako txapelkun

Enrike Huizi-Julen Urruzola bikoteak irabazi du nagusien 2. mailako finala.

Futbola Haranen

Martxoak 12, larunbata
■ 10:00 Eskola Kirola.
■ 11:00 Infantil neskak:
-Udarregi Usurbil FT
-Arrupe Chaminade CD B
■ 12:15 Infantil mutilak:
-Udarregi Usurbil FT A
-Anaitasuna CD A
■ 15:30 Kadete neskak:
Usurbil FT-Touring KE
■ 17:45 Erregionalak:
Usurbil FT-Euskalduna SD

ZERBITZU BERRIA!
ASTEARTETIK OSTIRALERA
EGUNEKO MENUA

PLATER KONBINATUAK,
HANBURGESAK,
ENTZALADAK, OGITARTEKOAK,
RAZIOAK...

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

MARTXOAK 20, IGANDEA
18:00 SUTEGIN

Laburbira

Euskarazko film laburren XIX. zirkuitua - 2022

SARRERA DOAN. Gonbidapena usurbilkultura.eus plataformaren bitartez hartu behar da.



SERENDIPIA



ITSASONTZIAREN MUGIMENDUA



LANBROA



FALTA ZAIZUNA



HURRENGO GELTOKIA



REWIND



TURNOKA



SUBANDILLA



ITSASO



noaia

noaia



Askorako eman dute 25 urte. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarriko bultzada izan zuen Noaia Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da inder hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gubxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

40€
URTEAN

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*
* 30 urte betetzean automatikoki bazkideza
arrunta izatera pasako da.



ESKANEAU

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaia Kultur Elkartearen eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreteretan.
- Datorren urteko errenta aitopenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIURAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.com
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

BA PELLO ZABALAK HORRELAKO MAPAK EGITEN ZITUEN, ETA DENAK ARANTZAZUKO SANTUTEGITIK, AIZU



BAI ASTUNA!

Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.

BA PELLO ZABALAK HORRELAKO MAPAK EGITEN ZITUEN, ETA DENAK EUSKAL TELEBISTATIK, AIZU



BAI ASTUNA!




Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

Mezu gordea

Esaera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioen honoko honek:



ALFABETOA									




JOXE, EZ ATERA ATERKIRIK GABE, BEHARKO DUZU ETA. NIRE HEZURREK EZ DUTE ENGAINATZEN.



Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.



Bide batez, marraztu iezaiozu zakur iletzu bat alboan eta margotu.



HOZKIRRIA

LANGARRA

ERREKA-LAINO

ENBATA

ZIRIMOLA



Zer?!

Ba al dakizu nola esaten zaion tramankulu honi? Haizearen abiadura eta norabidea neurtzeko balio du eta ez da A letraz amaitzen.

ISOBARA ARRANPALO

BELOZIPEDO

ARRANGURA

HAIZAGAILU

ANEMOMETRO

UFADA-PALA

Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.

Marta Agirre eta Mikel Ikatzategi: “Emozio talka handia eta etengabea da”

Aste hasieran hiru egun zeramaten Marta Agirre eta Mikel Ikatzategi herritarrek Bikiren berririk izan gabe. Komunikazioak eten dizkietelakoan daude. Baina kezka sentitzea eta bizi duten emozioen talka handia ezin saihestu. Biki Ukraina iparraldean bizi da. Txernobil elkar-tearen eskutik, harreran hartu izan dute etxean Martak eta Mikelek uda partean. Lehendik bizi duten pobrezia egoera eta Txernobilgo zentral nuklearren istripuaren ondorioei, gerra bortitz baten eragina batu zaie orain. Egunotan bizitzen ari direna partekatu dute NOAUA!-rekin bi usurbildarrek.

NOAUA! Non eta nolatan hasten da zuek Ukrainarekin duen hartueman?

Duela bost urte ume bat harreran hartzea erabaki genuen udan. Biki hiru urtez etorri izan da Usurbila. Osasun krisialdiko azken bi urteotan ezin izan da etorri. Halere berarekin hartuemanetan jarraitu dugu. Egoera zaila izan arren, azkenean irailean berarekin Ukrainan egon ginen.

Txernobil inguruan bizi da, ezta?

Ukrainak 40 milioitik gora biztanle ditu. Guk ezagutzen dugun eskualdeko hiriburua Ivankiv da, 10.000 biztanlekoa. Inguru horretan gehienak etxe multzoak dira, ez dute herri egiturarik. Eskualde hau, Kievetik 100 bat kilometrora dago, iparraldean, Txernobil sartu ezin den eremuko perimetro horrekin mugan. Ukraina barruan baldintza okerrenetan dagoen eskualdea da. Eskualde hau hiru aldiz kolpatua izan da. Batetik, pobrezia handian bizi dira. Bigarren kolpea Txernobilgo istripua izan zen eta



“Duela bost urte ume bat harreran hartzea erabaki genuen udan. Biki hiru urtez etorri izan da Ukrainatik Usurbila”.

UKRAINAKO EGOERA

“Bapateko desastre bat da. Kezkatuta zer gertatuko den.

Etorkizunari begira ilun ikusten dira gauzak. Eta hemendik ezin ezer egin”

haren ondorioak. Orain hirugarren zaplastekoa iritsi zaie gerra honekin. Ez da zonalde estrategiko bat, baina Bielorrusiatik Kieverako bidean erdi-erdian daude. Tropa errusiarrak handik pasa dira.

Zeharkaldi horrek zer arrasto utzi du?

Txernobil elkar-tearen programan gaudenekin komunikatzeko whatsapp talde bat du. Egoera nahiko kezka-

garria da. Egoera nahiko zaila daudela dirudi. Sotoetan sartuta daude. Sotoak ez dituzten kasuan, familiak baldintza hobereenetan dauden etxeetan elkartzen dira. Elkar asko laguntzen dira, auzolan hori dago. Leherketak eta tiroak entzuten hasten direnean, gauean lo egiteko sotoetara jaisten dira. Egunean zehar egoera lasai badago, sototik atera egiten dira. Baina kanpora joatea ere arriskutsua da. Ez dira asko ateratzen, beldurra dute. Pentsaezina da errepide-ateratzea, kotxez atera izan direnean tiroketak aurkitu izan dituzte. Herri bakoitzean egoera aldatzen da, gertaeren arabera. Herri batzuetan etxe asko txikitu dituzte, gatazka nahiko handia egon da. Ivankiv hiriburuan badirudi kalteak oso handiak direla, bai humanoak

eta materialak. Bikiren bizilekua, lauzpabost kilometrora dagoen 500 pertsonako herrixkatxo bat da. Badirudi han bertan ez dela kalte handirik izan. Tiroak eta leherketak entzuten dituzte halere.

Nola bizi duzue distantziatik bere egoera?

Bapateko desastre bat da. Kezkatuta zer gertatuko den. Etorkizunari begira ilun ikusten dira gauzak. Eta hemendik ezin ezer egin.

Inpotentzia handia, beraz.

Emozio talka handia eta etengabea da. Kontraste hori: ezin ezer egin, distraitu beharra, Inauteri giroa lehengo asteburuan, han ezagunak ditugunean zulo batean sartuta, bonbak erortzen ari zaizkielako. Ezin da ulertu. Kontraste oso latza da.

“Babesa da ukrainiarrek une honetan behar dutena”

NOAUA! Txernobil elkartearen bidez harreraren hartu zenuten Biki etxean. Beste dimentsio bat hartuko du orain egitasmo honek?

Birplanteatu beharko da dena. Egunitan elkarrekin harrera familiarekin batzar telematikoa egin du, egoera zertan den azaltzeko, zer egiten ari diren... Haien esaldietako bat hori zen, elkartearen beraren zeregina goitik behera birplanteatu beharko dutela egoera honetan. Beraien egitasmo nagusia familia horiei udako osasun programaren bidez haurrak ekarri laguntzea izan da nagusiki, baina orain beharrrak zeharo aldatu dira. Orain gerrak iraun artean haur horiei handik atera ahal izateko aukera eskaintzeko lanean ari dira. Horretarako hango erakundeekin hartuemanetan daude. Bestetik, gerrak utziko dituen ondorioak daude; lehendik jada oso gaizki zeuden familia batzuk dira. Horiei ere laguntza eman beharko zaie ahal denean, une honetan ezin baita iritsi laguntza hori.

Lehendik egoera zaila bizi bazuten, baldintza okerragoak izango dituzte orain.

Etxe oso oinarrizkoak dituzte, prekariorak. Putzu bat dute, eta handik hartzen dute ura. Askok ez dute etxeetara ura era-



“Biki hiru urtez etorri izan da Usurbila. Osasun krisialdiko azken bi urteotan ezin izan da etorri. Halere berarekin hartuemanetan jarraitu dugu”.

LAGUNTZAK BIDERATZEKO

“Txernobil elkarteak diruz laguntzeko eskaera egin du. Elkarteak kontu korronte bat ireki du propio horretarako”

manda. Komuna etxetik kanpo, Ukrainan izan duten hotzarekin. Orain arte argindarra eta komunikazioa izan dute. Pobrezian bizi dira, gehienek baratza dute. Aukera dutenean lantzen dute eta lurra eman-dakoa gero sotoetan gordetzen dute. Neguari aurre egiteko baliatzen dute. Jatekoa eta edatekoa badute, eusteko moduan dira. Arriskutsua baita dendara erosketak egitera joatea. Hornidura eten dute gainera. Bestela, panorama oso latza dute.

Harrera programan dauden familiak, programara sartzeko beharren arabera hautaketa egiten da. Okerren daudenak dira programan daudenak eta laguntza gehien beharko dutenak ere haiek izango dira.

Behin eta berriz ari dira eskatzen, gertatzen ari dena zabal-tzeko.

Munduan nola dauden, ahazten baditugu inongo konplexurik gabe pasako zaie tanke gainetik. Norbait begira bada- go kanpotik beti jakiten da zer egiten den. Bakarrik ez sentit- ze hori garrantzitsua da. Babesa azkenean. Babesa da une honetan behar dutena.

Zer egin dezakegu, nola lagun- du?

Ezin denez ezer bidali, lagun-

tza morala eman dezakegu, gertatzen ari denaren lekuko- tza eman. Txernobil elkarteak une honetan egin duen eskaera diruz laguntzearena da. Elkar- teak kontu propio bat ireki du. Honako hau: ES62 2100 6491 1222 0003 6970. Diru hau era- biliko da, zuzenean programan dauden familiak laguntzera be- har duten horretan. Diru hori elkarteak kudeatuko du zuzenean, ez dio beste bitartekari bati emango eta helburu hu- manitario horretara zuzendua egongo da. Ikuskatua izango da kontua, benetan diru hori nola kudeatu den ziurtatzeko. Txernobil elkartearekin hartue- manetan jartzeko telefono zen- bakia 670 419 078 da.

Ukrainan bizi duten egoerak zer bide har dezake?

Egunez egun, zer pasatzen den ikusi behar. Bereizi behar da, zer den gerra eta zeintzuk diren atzean egon litezkeen eztabaidak. Gerren ondorioak benetan ordaintzen dituztenak modu bateko zein besteko era- bakierekin zerikusirik ez duen jende xumea da. Pertsonak, herritarrek ez dira politikarien errudunak, ez dute zertan or- daindu ez Ukrainako ez inongo gerrarik. Ukrainarrek gure ba- bes guztia merezi dute, eta pre- sioa egin behar da diplomaziak bere bidea egin dezan.

“Iragan ostiralaz geroztik ez dugu bere berririk izan”

NOAUA! Komunikazioan zau- dede Bikirekin?

Egunero ondo daudela eta egun lasaia izan dutela jaki- teak lasaitzen zaitu. Lehen egunetan, Bikik nahiko azkar erantzun izan du. Komuni- kazio konexio gabe izan dira zenbait uneetan. Baina iragan ostiralaz geroztik ez dugu bere berririk izan. Harrera programako beste familiek ere ez; beraz badirudi Internet

eta telefono seinalerik gabe ge- ratu direla Ivankiv eskualdean. Elkarteak whatsapp taldera askok idazten dute kezkatuta, halako herrietan nola dagoen egoera, ez dutelako lortzen hiru egunetan albisterik izatea. Txarrena pentsatzen zaude, zer gertatu ote zaien, normala kezka horrekin egotea. Hango jende askorengandik jasotako informazioa heltzen zaigu. In- formazio ugaria, baina biga-

rrer egunetik elkartearen bidez ohartarazpen bat egin ziguten; kontuz ibiltzea. Iturri fidaga- rrietatik heldu zitzaizen oharta- razpena; errusiarrak whatsapp mezuak eskaneatzen ari zirela eta arriskutsua izan zitekeela.

Lokalizatu zitzaketelako?

Atzerriko hizkuntza eta tele- fono batera komunikatzen ari direla ikusita, zalantza izanez gero, lokalizatu eta bonba bota

dezakete. Gerra halakoa da. Arrisku horiek gutxitze alde- ra, ukrainieraz komunikatzea, filtroak zaintzea eta whatsapp ez erabiltzea aholkatu ziguten. Telegram gehiago erabiltzen dute. Komunikazioan dezente mugatzen gara, guk toki ize- nik ez dugu aipatzen. Guri ez digute esaten izenarekin non dauden, badakigu non dauden. Ondo eta bizirik daudela jakiteko komunikatzen gara.

Sofia Volkova: “Amarekin hitz egiten dudanean tiroak eta bonba hotsak entzuten dira”

Mundu osoak zer gertatzen ari den jakitea nahi luke. “Denek egoeraren larritasuna ulertzea”. Sofia Volkova ukrainarrak behin eta berriz errepikatzen dituen hitzak dira honakoak. Madrilen darama bizitzen azken zazpi urteetan, baina Usurbil bihotzean darama, bereziki urte luzez etxean hartu izan duten Bizkarreko familia. NOAUA!-ekin partekatu du une honetan bizi duen egoera zaila.

NOAUA! Noiz izan zinen azkeneko Ukrainan?

Sofia Volkova: Azkeneko duela hiru urte. Duela bi urte itzuli nahi nuen, baina pandemia heldu zen eta ordutik ezin izan dut familiarekin egon. Aurten joateko asmoa nuen eta orain ez dakit noiz itzuli ahalko naitzen.

Pandemia lehenik, gerra orain. Zer moduz zaude eta urruntasunetik nola bizi duzu zure sorterrian gertatzen ari dena?

Oso gogorra da. Nire familia txikia da, alaba bakarra naiz. Amak garun paralisia du, amona pertsona heldua da, osasunez nahikoa pattal dago. Pandemia heldutakoan haiengatik oso kezkatua nengoen ez bainekien birusak zenbateraino eragingo zien. Ezin izan dut joan hara, nik haiei kutsatzea kezkatzen zidalako. Bizitzaren aldeko borroka askoz handiagoa da orain. Amarekin hitz



Sofia Volkova Madrilen bizi da baina urte luzez egonaldiak egin ditu Usurbilen.

SOFIA VOLKOVA

“Irpinen bizi da familia, Kiev-etik 10 kilometrora. Jendea sotoetan dago, ur eta argindarrrik gabe, berogailurik eta janaririk gabe, gosez hiltzen ari dira”

egiten dudak bakoitzean tiroak eta bonba hotsak entzuten dira. Otsailaren 24az geroztik ez du lo egiten, ezin du lasai egon; kezkatua nago, beldurtuta. Madrildik oso gaizki eramaten da, une honetan zuk ezin baituzu familiaren ondoan egon. Irpinen bizi da familia, Kiev-etik 10 kilometrora. Jendea sotoetan dago, ur eta ar-

gindarrrik gabe, berogailurik eta janaririk gabe, gosez hiltzen ari dira. Ama zorte gehiago izaten ari da. Inguruko eraikinei eragin die, eta pixka bat beraiei, baina ez hiriko beste zonalde batzuetan bezainbeste.

Ama zer ikusten ari da etxetik?

Amak ez dit bideo edo argazkirik bidaltzen, ni ez beldurtzeko. Etengabe komunikatzen gara idatziz. Arau gisa jarria dugu ordu eta erdiro idatziko didala ondo eta bizirik dagoela adierazteko. Ez badit idazten nik idazten diot. Gauez ordu-bete baino gehiagorik lo egin ezinik egoten naiz. Mugikorra ikusteko esnatzen naiz amaren mezurik dudak ikusteko. Mezurik ez badut goizaldean idazten diot, edo bestela sare

sozialetara jotzen dut bonbardatzen ari ote diren ikusteko. Dena ondo badago, badakit ez dagoela inolako arazorik, lotan egongo dela. Tiroketak egon daitezkeela susmatzen badut, bizilagunei idazten diet. Askotan jaso izan ditut amaren ahots mezuak, goizeko 6:00etan berriz tirokatzen eta tanke errusiarrak hirian dardela esateko eta ahal duenean idatziko didala esanez. Amesgaiztoa da horrela esnatzea. Duela egun gutxi audio bat bidali zidan, desgaitasun larria duten bere bi lagun ezin dituela topatu esanez, negarrez, oso kezkatuta. Handik irteteko aukera bilatzen ari dira, baina pertsona osasuntsu batentzat zaila bada, desgaitasun bat dutentzat askoz zailagoa da.

“Zibilen zonaldeak kolpatzen ari dira”

NOAUA! Argi denez, zibilen aurka jotzen ari dira.

Sofia Volkova: Errusiarrek diote militarki estrategikoak diren eraikinak erasotzen ari direla, baina ez da hala. Zibilen zonaldeak kolpatzen

ari dira. Ez dakit zenbat hildak dituzten. Zenbat ote daude misilek jotako eraikinen azpialdean, babeslekuetara heldu ezin izan dutenak, zenbat erre ote diren eraikinetan, tirokatuak egongo direnak gor-

puak kalean...

Hau guztia espero al zenuten?

Urte asko daramagu tropa errusiarrak Ukrainan zeudela, Errusiaren mugan. Donetsk eta Lugansk hor zeuden tro-

pa errusiarren eraginpean. Jendea ni bezala bazen XXI. mendean European halako egoera bizi zezaketenik irudikatu ezin genuenak. Iraganen bizitakoa errepikatzen ari da orain.

“Ezin dugu bertan egon, eskua eman”

NOAUA! Europa ere jopuntuan jartzen du gerra honek. Ze bilakaera izan dezake?

Sofia Volkova: Ezinezkoa da ezer aurreikustea. Bizi eta material galera handia daramagu jada, baina Ukrainak ez du amore emango tropa errusiarrak joan arte. Ukraina libre eta salbu nahi dugu. Tropa errusiarrak Ukrainatik joan arte ez gara hala sentituko.



“Tropa errusiarrak Ukrainatik joan arte ez gara libre sentituko”.

Egunotan oso lanpetuta zabitza zure sorterrira laguntzen?

Dolu prozesu bat da hau; gauza asko galdu ditugu, lasaitasuna edota etorkizuneko segurtasuna. Bideok grabatu eta sare sozialetara bidaltzen ari naiz. Asmoa mezuok ahalik eta urrunen heltzea da. Enbaxada aurrean protestatzen dut, gutunak bidaltzen dizkiet munduko

SOFIA VOLKOVA

“Gizateriaren aurkako krimenak dira errusiarrak egiten ari direnak”

txoko ezberdinetako kazetariei eta Europako erakundeei, dirua bidaltzen ari naiz kon-

fiantzako kontaktuei sorterrira helarazteko. Madrilen botikak erosi ditut bolondres gisa nabilen laguntza bilketa gunerako. Hori da egin dezakegun gutxienekoa.

Egoera honetan, zer egin dezakegu?

Laguntza humanitarioa behar

dugula argi dago. Baina bereziki oraintxe jendea gerraren aurka ager dadila behar dugu. Oinarrizko giza eskubideak aldarrika ditzala denek entzun eta kasu egin diezaguten. Gizateriaren aurkako krimenak dira errusiarrak egiten ari direnak. Ahalik eta babes gehiena behar dugu Europar Batasunean eta NATO-n entzun eta zer bait egin dezaten, zigorretatik haratago, jende gehiago hil ez dadin. Ez dugu gerrarik nahi, bakea baizik. Denok nahi dugu desgaitasuna duten pertsonak ikusgarri izatea, haurrek goserik ez izatea, haurtzaroan gosea bizitakoa bainaiz. Aurreko gobernuen arduragabekeriagatik ez nuen jatekorik eta ez dut inork halakorik pasatzerik nahi. Ukrainarrek ez dute halakorik merezi.

“Usurbil bihotzean daramat”

NOAUA! Elkarrizketa hau bereziki Usurbilen bizi diren zure senideek irakurriko dute. Zer lotura duzu herri honekin? Zer esango zenieke haiei?

Sofia Volkova: Usurbilgo elizaren argazkia, nire ordenagailuko pantaila-babeslea da aspalditik. Usurbil bihotzean daramat. Nire bertako sendia babes itzela izan da beti. Une honetan ere asko laguntzen ari dira. Asko maite ditut. Beraingana joan nahi nuke

oraintxe bertan, baina uste dut Madrilen oraintxe gehiago egin dezakedala laguntzeko. Beraiek halako gerrarik ez ezagutzea nahi nuke.

Usurbilekiko duzun lotura Txernobilgo hondamendiaren ondotik dator, ezta?

14 bat urte nituela. Txernobilgo haur bat bezala joan nintzen uda batzuetan Usurbila, laguntzen ari zen elkarte baten eskutik. Ukrainan ikasketak amaitzen aritu nintzen

gero, hortik janaria, liburuak bidaltzen zizkidaten.

Duela zazpi urte Madril-en bizi naiz, nahiz eta geroz eta argiago dudana Usurbilen ez bada Gipuzkoan bizi nahi dudala, nire senideengandik hurbilago egoteko. Madrilera etortzean, bizpahiru hilabetero Usurbilera joaten nintzen. Niretzat plazer handia da beti Usurbila bueltatzea. Bake eta laguntza handia ematen dit. Zuen ateak zabaltzen dituzueanean familiakotzat sentiaraz-

ten gaituzue.

Iraganean egin bezala, elkartasunerako deia zabaldu nahiko duzu.

Euskal Herriak beti lagundu du asko Ukraina, Txernobilgo haurrak harreran hartzen laguntzeko hainbat elkarrekin hasita. Euskal Herria beti izan da oso solidarioa ez bakarrik Ukrainarekin, bertara joandako edozein pertsona migranteekin izan da oso solidarioa.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Zaintza eredu berria inplementatzeko bide-orria diseinatzen hastera doaz

Fase aldaketa betean da zaintza ereduari buruz iaiztik Usurbilen abian den parte hartze prozesua. Arreta ereduaz eta horren bueltan “eraiki beharreko zaintza ekosistemaz” hausnartu ostean, eta prozesu horretatik landutako diagnosia eskutan, inplementaziorako bide-orria diseinatzen hastera doaz.

Horretarako parte hartze prozesua kolektibo edo eremu gehiagotara zabalduko dute. Lau lan talde osatu nahi dituzte. “Lan talde bakoitzak bere gaitegi, erritmo eta edukiak izango ditu”. Zaintza ekosistemaren definizioa lantzen aritu den talde eragilea izango da guztion lotunea. Zainketa lanengatik prozesuan parte hartzeko ezintasuna izan dezaketen herritarrentzat “Udaletik baliabide propioak” iragarri ditu udal gobernu taldeak; “etxez etxeko zerbitzua eskainiko dugu bigarren fase honetan parte hartzea erraztu ahal izateko”.

Urte amaierarako proposamen zehatz bat prest izan nahi lukete, eredu hau indarrean jartzen hasteko hurrengo urtean.

Etxean bezala senti daitezten

Orain arte jorraturiko bidearen balantzea plazaratu dute egunotan, egitasmo honen sustatzaileek. “Zaintzak begirada,



“Zaintzak begirada, ertz asko ditu eta ertz horiek guztiak barnebilduko lituzkeen prozesu bat abiatzen saiatu gara”.

HELBURUA

“Usurbilen zaintza ekosistema berri bat diseinatu, eraiki eta martxan jartzea” da Udalaren helburua

ertz asko ditu eta ertz horiek guztiak barnebilduko lituzkeen prozesu bat abiatzen saiatu gara”, alkate Agurtzane Solaberriaren esanetan. Zaintzaren bueltako sare bat osatu dute sektoreko profesional, langile, zaintza behar duten herrikide, senide, elkarte, erakundeetako ordezkari, mugimendu feminista eta abarrekin, “elkarlana eta lankidetzaz ezinbestekoa izango dugulako zaintza eredu eta ekosistema oso bat eraikitzeko”. Argi zioen alkateak, “ekosistema berri horren eraikuntzak

kolektiboa, behetik gorakoa izan behar zuela”. Helburu argi batekin; “Usurbil herri zaintzalean bihurtzea”.

Matia Institutuarekin elkarlanean

Udalak Matia Institutuarekin elkarlanean abian jarritako prozesua da honakoa, “Usurbilen zaintza ekosistema berri bat diseinatu, eraiki eta martxan jartzea” helburu duena.

Bi aldean urteetako lankidetzaren islada argia da prozesu hau. Bien, Udalaren eta Matia-aren ekimenez Kalezarren adinekoren zaintza auzune berria eraikitzen ari dira, “proiektu berritzailea eta aitzindaria Euskal Herrian, hirigintza nahiz gizarte ikuspegitik” alkateak gogorarazitakoaren arabera. Bertan arreta eredu berritzailea

eskainiko diete erabiltzaileei, “etxean egongo balira bezala senti daitezten”.

Testuinguru horretan, lankidetzan sakontzeko hautua egin zuten bi aldeek; “Usurbilen zaintza ekosistema berri bat eraikitzeko lanean jarri ginen, horretarako estrategia oso bat diseinatu”. Iraupen luzeko zainketen sostengarritasuna bermatuko duen tokiko ekosistema bat osatu nahi dute, “Usurbilen errota, oinarri komunitarioa duena, zaintza behar dutenen nahiak erdigunean jarriko dituen eta etxetara begira dagoena”. Bokazio horretan kokatu ditu alkateak Kalezarren eraikitzen ari diren adinekoren auzunea edota Ugartondon kokatuko duten Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa.

Zaintzari lotutako prozesuaren bigarren fasea

■ Helburua: zaintza ereduaren eraldaketaren inplementaziorako bide-orria diseinatzea.

■ Iraupena: lau-pabost hilabete. 2023an inplementaziorako urratsak ematea da asmoa.

■ Lan taldeak:

1.- Zerbitzuak: zaintza lanak eskaintzen dituzten enpresetako

ordezkari eta langileen taldea. Egun eskaintzen diren zerbitzuen ereduari eta balizko eraldaketari buruzko azterketa bideratu asmo dute. Etxez etxeko zerbitzua lehenetsi asmo dute.

2.- Zaintzaileen eta zaintza behar duten pertsonen taldea: etxean nola zainduak izan az-

tertuko dute.

3.- Gizartze zerbitzuen taldea: eredu berrira jauzi egiteko Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamenduko langileen formazioa sustatuko duen taldea.

4.- Herritarrak: komunitatea zaintza eredu horren parte nola

izan, horretaz hausnartuko du talde honek.

Hurrengo hitzorduak

■ Martxoak 16 asteazkena: 18:30ean bilera herritarrekin Potxoenean, orain arte egingandakoa aurkeztu eta aurrera begirako urratsak azaltzeko.

N-634 errepideko lanak martxoaren 25era arte luzatuko direla dio orain Aldundiak

Martxoaren 25ean amaituko dira Txikiardi eta Troia arteko errepide zatia hobetzeko lanak. Halaxe jakinarazi du Aldundiak. Baina nork daki, dagoeneko hiru data ezberdin eman dituzte.

Txikiardiko lanak martxoaren 9an amaituko direla dio Aldundiak. Eta biharamunean, martxoaren 10ean, Troiako aldaparekin lotzen den bidegurutzeari konpontzen hasiko dira. Azken hau hilaren 25era arte luzatuko dela iragarri du.

Martxoaren 4an bukatuko zela esan zuten, gero hilaren 18an...

Otsailaren 18an hasi zituzten Troia eta Txikiardi arteko errepide zatia hobetzeko lanak. Ezustean, jakinarazi gabe, trafikoan ilara luzeak eraginez. Hasiera batean, martxoaren 4an amaitzea zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurreikus-



N-634 errepidea Troiako aldaparekin lotzen duen bidegurutzeari konpontzen hasiko dira aste honetan.

TROIAN HASIKO DIRA ORAIN

“Troiatik N-634 errepidera sartzen diren ibilgailuek Donostiarako noranzkoa baino ezingo dute hartu”

pena. Data berria finkatu zuen duela bi astebete; martxoaren 18a. Aurreko astean epe-muga berri bat iragarri zuten: martxoaren 25a. N634 errepide

ertzeko babes-horma bertzen ari dira, euste elementuak egoera arriskutsuan zeudelako. Lan hau amaitu eta segidan “Troiako sarrera-irteera inguruan hasiko dira lanean”. Adi beraz asteotan, errepide hau baliatu behar izanez gero.

Troiako oinezko pasabidea itxi egingo dute

Txikiardiko lanak amaitu

eta segidan, N634 errepidea Troiako aldaparekin lotzen den bidegurutzeari konpontzen hasiko dira. Troiakoa martxoaren 10ean hasi eta hilaren 25era arte luzatuko dela iragarri dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esanetan, Troiako konponketak zailtasun handiagoak ditu. “Tarte motzagoa izan arren, obraz gain, makinaria sartzeko leku gutxiago izango dutelako. Horregatik, eta udalak ahalegina egiteko eskatu arren, oinezkoen pasabidea deuseztatu egingo dute, segurtasunagatik”, udalak aditzaera eman duenez.

Troiatik dabilzan gidarientzako oharra

Lan hauek irauten duten bitartean, Troiatik N634 errepidera sartzen diren ibilgailuek Donostiarako noranzkoa baino ezingo dute hartu.

Gauzak ondo, martxoaren 25ean amaituko dira lanak. Denborak esango du.

Urrats berriak, Etxealdia irisgarriagoa izan dadin

Etxealdiak dituen irisgarritasun arazoak konpontzeko urrats gehiago eman dituela berri eman du Usurbilgo Udalak. Batetik, “San Esteban kalea irisgarri egiteko proiektuaren idazketa esleitu du”. Helburua Udalaren esanetan, “oinezkoei lehentasuna ematea eta irisgarria izatea” litzateke. Gogoan izan, San Esteban kaleak Kale Nagusia Etxealdiarekin lotzen duen aldapa da, tren geltokira nahiz Santueneara joan nahiz eremuotatik itzultzeko pasabideetako bat.

Idazketa proiektua esleitu-ta, “proiektua idazteko bizpahiru hilabete behar dira,



Auzoko jesarleku guztiak aldatu dira, lehen zeudenak ez zirelako irisgarriak.

eta, ondoren, finantzaketa lotu eta exekuzio proiektua esleitu behar dira” argitu dute Usurbilgo Udaletik.

Aparkaleku eta eserleku irisgarriagoak

Bitartean, xumeagoak diren

konponketa lanak ere bideratu dituzte Etxealdian bertan. “Auzoko banku guztiak aldatu dira, lehen zeudenak ez zirelako irisgarriak. Bestetik, elbarrientzako aparkalekua lekuz aldatu da, gune irisgarriago batera. Bizkarre kalean, auzora sar-

tzeko zebrabidea ere margo-tu dute, norabide bakoitzeko marra bana motorrak ez irris-tatzeko moduan jarrita”.

Beharrok urtarilaren 19an azaleratu zituzten auzotarrak Usurbilgo Udalarekin Etxealdiako plazan egin zuten bilkuran. Epe laburre-rako eskuhartzeak bideratu (aurtengorako 15.000 euroko partida erreserbatua du Udalak bizilagunek lehenetsitako inbertsiorako) nahiz hurrengo urtean hasieraz onartu asmo duten Hiri Antolatze Plan Orokorrean txertatu asmo duten etorkizuneko planeamendua diseinatu asmo du Udalak bizilagunekin.

Joan Mari Torrealdairen azken liburua aurkeztuko dute larunbat honetan Sutegin

Joan Mari Torrealdairen azken lana, Egunkariaren sorrera eta itxiera hizpide duena aurkeztuko dute larunbatean, martxoak 12, 12:00etan Sutegin. Amaitzeke zuen 'Egunkaria. Gizarte zibilaren arrakasta' izeneko lana, 2020ko uztailan zendu zenean. Bere senideek eta Joan Mari Larrartek osatu dute. Larunbat honetan aurkeztuko dute jendaurrean.



Larunbat honetan, eguerdiko 12:00etan aurkeztuko dute liburua Sutegin.

1990ean sortu zen Euskaldunon Egunkaria, herri ekimenari esker, eta 2003an itxi zuten, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz. Joan Mari Torrealdaik lehen pertsona bizi izan zuten prozesu osoa. Sorreratik hartu zuen parte Egunkaria Sortzen-en, hasieratik izan zen

LIBURUA

"Bere bizipenetik abiatutako kontaketa da, gogoeta pertsonalekin osatu eta aberastua"

Administrazio Kontseiluko kide -bertako lehendakari ere bai

azken urteetan-, eta atxilotutakoen artean zegoen. Liburu honetan, hori dena kontatzen du, sorreratik itxierara eta ondorengo epaiketara arteko ibilbidea. Bere bizipenetik abiatutako kontaketa da, gogoeta pertsonalekin osatu eta aberastua.

Udal diru laguntzak eskatzeko garaia

Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago aste hasieratik. Oinarriari buruzko informazioa martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaso dezakezue. Gogoan izan, dirulaguntzak telematikoki eskatzeko formazio saioa antolatu duela Udalak; martxoaren 14an egingo da 18:00etan Potxoenean.

Kontaktu estuek, berrogeialdirik ez

Espainiako Gobernuak eta autonomia erkidegoetako gobernuek hala adostu dute. Aurrerantzean, Covid-19a duten pertsonen kontaktu estuek ez dute isolatu beharrik izango. Positiboek bai, zazpi egunez.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

Eguraldi iragarpena
Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.

Itzala
Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

Mezu gordea
Esatera zihar asko eguraldia ingartzeko trukuak direla ematen du. Jarni iruditxo bakoitzaren azpian dagoekin hizkia eta asmatuko duzu zer dioen honako honek:

ALFABETOA

M A R T X O G E Z U R T I
G A U R E U R I
B I H A R E G U Z K I

A B C D E F G H I
J K L M N O P Q R
S T U V W X Y Z

Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.

Bide batez, marraztu izeziatzu zakur iletsu bat alboan eta margotu.

Bakotzari berea
Lotu hitz bakoitzari dagoekin irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbeste zuk ezagutzen duzuna.

HOZKIRRIA LANGARRA
ERREKA-LAINO ENBATA
BIZINA ATENAZA BEHARNO DUT ALA EZ DUT BEHARNO? ZIRIMOLA
DENA LANBROTUTA IKUSTEN DUT

ISOBARA ARKANPALO
BELOZIBEDO
ARRANGURA
HAIZAGAILU ANEMOMETRO UFADA-PALA

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, masakotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. Interesatuok, hona deitu: 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsalderarte lan egiteko. 660788832.

Pertsona heldu bat zaintzeko zaintzale euskalduna behar dugu. Arratsaldeetan aritzeko. 616 27 37 85.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaur-laritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaeretakorako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688715958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

Interna moduan edo orduka pertsonen zaintzan lan egingo lukeen neska bat naiz. Mugitzeko aukera dut. 643154392

BESTELAKOAK

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelailan. Aurkitu baduzu deitu 685725681

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Pottoko!**

Beste urte bat bete duzu Beste urte bat bete duzu pozzoz! Jarraitu horrela etxeko guztiak alaitzen. Asko maite zaitugu. Muxu potoloak!!

**Zorionak Nahia!**

11 urte dagoeneko! Mila esker gure bizitzetara etortzeagatik! Muxu handi bat etxekoan partez.

**Zorionak Iera!**

Ondo ondo pasa eta ospatu zure 14. urtebetetzea... Muxu asko eta besarkada handi bat familia guztiaren partez!!! Jarraitu horrela izaten.

**Zorionak Ainhoa!**

Goxatu etxekoekin eta muxu handi handi bat!!

**Zorionak Nekane!**

Goxatu etxekoekin... Maite zaitugu... Namaste

Heriotzak**Ander Insausti Eceiza**

Martxoaren 2an hil zen
49 urterekin

**Heriotzak****Eusebio Ikutza Aizpurua**

Martxoaren 3an hil zen
80 urterekin

**Heriotzak****Santiago Barreña Cuadrado**

Martxoaren 6an hil zen
92 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 17 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 19 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

10 osteguna

- "Aktibatzen" prozesuari lotutako bilera. 18:00-20:00, Potxoenean.
- "Ez gara kolonialistak baina..." hitzaldia Sutegin. 19:00etatik aurrera, Axier Lopezen eskutik.

11 ostirala

- **Gazte Eguna.** Zineforuma frontoian. Gazteizko gaztetxeari buruzko dokumentalaren proiektzioa. 22:00etan. Ikus 5. orrialdea.

12 larunbata

- "Egunkaria. Gizarte zibilaren arrakasta" liburuaren aurkezpena. 12:00etan Sutegin.
- **Euskal Herriko Mus Txapelketa: sailkatze saioa.** 16:30ean Aitzaga elkartearen. Izen ematea: 16:00-16:30 artean.
- **Gazte Eguna.** Ikus 5. orrialdea.

Euskal Herriko Mus Txapelketako sailkatze saioa Aitzagan jokatu da

Euskal Herriko Mus Txapelketa bueltan da. Herriz herriko kanporaketa saioak hastera doaz. Usurbilgoa larunbat honetan jokatu da, arratsaldeko 16:30ean Aitzaga elkartearen. Izen ematea ordu erdi lehenago zabalduko da, 16:00etan.

Aginaga eta Saizar sagardotegiek eta Bruño marisko etxeok lagunduko dute Usurbilgo hitzordua.

2020ko finala apirilean jokatu da

Bestalde, jokatzeko da oraindik 2020ko edizioko final handia. Osasun krisialdiak bitan atzerarazi duen hitzor-



Larunbat honetan, arratsaldeko 16:30ean Aitzaga elkartearen. Izen-ematea 16:00etan hasiko da.

dua apirilaren 2rako iragarri dute Leitzan. Euskal Herri osoko 128 bikote lehiatuko dira, tartean bi bikote usurbildar.

Informazio gehiagorako:

ehmus.eus

"Ez gara kolonialistak baina..." hitzaldia, Elkanori Bira herri ekimenaren eskutik

Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrenean, "Juan Sebastian Elkano euskaldunon nazioarteko ikur bilakatu nahi dute bulkada eta diru publikoarekin; duela 500 urte bezala, orain ere, Mendebaldeko gizon zurien 'balentriak' goraiatuz". Elkanori Bira ekimeneko kideek ordea,

"begirada eta diskurtso eurozentrinari" buelta eman nahi diote.

Martxoak 10 osteguna

- 19:00etatik aurrera Sutegin.
- Hitzlaria: Axier Lopez.
- Antolatzailea: Nafartarrak.

Datozenak

Hitzordu bikoitza NOAUA! Kultur Elkartearekin

NOAUA! Kultur Elkarteak bazkideen urteko batzar nagusia eta bueltan datorrigun film laburren proiektzioa antolatu du hurrengo asterako.

Martxoak 15 asteartea

- NOAUA!-ko bazkideen urteko batzar nagusia Potxoenean, 18:00etan. Gai-zerrenda:
 - 1.-2020ko memoria eta balantze ekonomikoa.
 - 2.-2021ko egitasmoak eta aurrekontuak.
 - 3.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
- Deitzailea: NOAUA! K.E.

Martxoak 20, igandea

- Laburbira, euskarazko film laburren emanaldia Sutegiko auditorioan, 18:00etan. Sarrera doan. Filmak:
- "Serendipia" (Iban del Campo).
 - "Itsasontziaren mugimendua" (Alba Romera eta Rony Levoz).
 - "Lanbroa" (Paula Iglesias).
 - "Falta zaizuna" (Jose Luis Gomez).
 - "Hurrengo geltokia" (Naia Aizpurua).
 - "Rewind" (Amaia San Sebastian).
 - "Turnoka" (Aitor Alberdi).
 - "Subandilla" (Josu Martinez).
 - "Itsaso" (Sergio Martinez).

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

PARRI
bazkariak EGUNERO
·afariak: OSTIRAL/LARUNBATA
☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Tapa eta aurkibideaK prest



Agur esan diogu 2021 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2021eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako Foru Alkandria
Diputazioa Foru
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan **ITXITA**

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • **943 55 69 81**



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

osasun neurri guztiekin



Tfn-fox: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea

